

BERAKO JOXE LANTX

SUTEGIAN

Joxe Lantx Mikelestorenak, Berako arotzak, 80 urte ditu eta jubilatua da, baina bere gustoko lanetan segitzen du. Berako gauza asko egin ohi ditu, adibidez, elizan, etxeetan...

Lantokiaren gainean du bere etxebizitza "Kabi arin" izenekoa. Burdina goritu ondoren kateak, iltzeak, erlojuak, argi tresnak, gurdiak ... egiten ditu. Garai batean, berak egiten zituen, baserrietako tresnentzat grasa. Oso trebatua da burdinezko lanetan.

Hola Joxe, espero dugu animoso egotea eta elkarrizketa hau lasai hartzea, ez bazaizu inporta oraintxe hasiko gara. Aurrera ba elkarrizketa.

** Betidanik gustatu al zaizu lan hau, zergatik ?*

- Bai, beti lan hau, ez dut beti lan hau egin. Nere lan haundia izandua da, Herriko urak eramane nittun nik, 40 urtean eta nere lana ez da izandu beti suteagian, bai kanpoan ere.

** Nork erakutsi zizun, edo non ikasi zenuen ?*

- Nik 13 urtez gero, nere attakin lanean aritu nintzan, 13 urtetik ta 20 urte arte eta 20 urtetikan gero 3 urte gerran egin nituen ta berriz, hemen gertatu naiz beti suteagian lanean.

** Burdinak gorituz ze lan egin ohi duzu gehienetan ?*

- Burdina goritu ? Bai burdina goritzen dugu guk aunitz aldetara biñon, batez ere suteagian, egur ikatzakin goritzen dugu guk, ta egur ikatza gaztainana gainera! Ez edozein ikatz e! Gaztainakin egina.

** Egin duzun lanetatik, zein kosta zaizu gehien egitea ? Oso zaila al zen?*

- Lana, lana, ez dakit nola erran hau, preziski ez da gustatzengatik bakarrik egiten lana baizikan, hara, bizi behar eta lan egin behar, hori gertatzen zaigu guri eta orain, hondar aldera egiten ttuzten lanak sutegian hagitz gustora egiten ditut.

** Zergatik gustatzen zaizu lan hau ?*

- Beno, lan hau egitea gustatzen zait zertaz niri ez zait iduritzen gaur, gaur bezala lan hau egin gabe bizitzen ahal dela.

** Erosten al duzu materiala lan hau egiteko ?*

- Bai, izan zen garaia bat oso zaila zela gaia hok etxetzia, bainon, gaur ez, gaur itxetzen da gai aukera eta gaia onak. Bakarrikan ezin duguna itxetu da ikatza. Ikatza dugu hagitz zail eta hagitz nekez itxetzia.

** Zer gustatzen zaizu gehiago, etxean telebista begira egotea ala gustoko lanetan aritzea ? Zergatik ?*

- Telebista begira egotea ez da 80 urteko atton batentzat egine! 80 urteko attonak telebision begira egoteko gogo ttikiak izaten ttugu. Nik benpen bai, nik telebision denbora gutti egoten naiz hagitz. Aunitz gehio egoten naiz hemen nere burdin tarte ho_tan.

** Zenbat denbora pasatzen duzu gehiago etxean ala lanean ?*

- Lanean, lanean aunitz gehio! Ni lanean goizian 8.00ak inguruan hasten naiz eta hortxen hortxen, egunen buruan 6 ordu egiten ditut lanean.

** Jende aunitz etortzen al zaizu lana ematera ? Adibidez aixturak zorroztera ?*

- Beno, aixturak zorroztera gutti etortzen dire ia aixturak zorroztera biñon, bertze lanakin etortzen zaizkit bai. Aixturak zorroztera etortzen zaizkit joan den urtean etorri ziren lehengo urtean baino, aunitz gehio bai, ta orain berriro bertze lanetan segitzen dut berjak egiten eta gis hontako sute giko lanak egiten.

** Zer moduz moldatzen zara etortzen zaizkizun bazkidekin ? Zergatik?*

- Zergatik? Bueno zergatikan, niri beti gustatu zaizkit hemen etortzen diren langileak neretarrak aunitz matte ditut e! Ta matti horri beri hor gelditzen da.

** Aukera izan bezenu, ze lan gustatuko zitzaizun egitea ?*

- Ni aritukatu naiz automobilak konpontzen, aritukatu naiz aixin erran dizuten bezala, herriko tuberiak konpontzen, ni aritukatu naiz baita herriko erlojuak eta moldatzen, ta horregatik nik ez dakit nola erran hau, gaur den egunean ez da honbertzeko lan alderditan aritzen, baizko bat izaten dute. Ni berriz ere bihar banu alde guztitan saiatuko nintzeke.

** Kanpoan beti kapeluarekin ikusten zaitugu, lanean ere erabiltzen al duzu ? Zergatik ?*

- Beno txapela gabe, txapela guk kapelua erraten diogu e, kapelua, bai hau gabe ezin naiz egon ez duzu ikusten ez zait iduritzen kapelua gabe ibili litekela, beti eramaten dut nirekin, beti!